



# B

BARREN

TOKIKOM

# Euskaltzale nekaezina

Felix Etxeberria



**Belaustegi  
Baserria**



**JATETXEA**

San Migel Gaina z/g  
Tel. 943 74 31 02  
[www.belaustegi.com](http://www.belaustegi.com)

**15. urteurrena**



**Eskerrik asko elgoibartarroi!**

Portxe-jardineko jaiman bazkaldu edo afaltzeko aukera.  
Ostiral eta larunbatetan, gaueko 22:00etatik aurrera kopak jardinean.



Andres  
Alberdi

Jori eta nahasiak izan dituk, izan di-  
renez, azken egunetako zenbait

albiste: Cañete ministroa-  
ren ahoberokeria ma-  
txista, Europako  
Hauteskundeetako  
emaitzak, Sestao-  
ko alkatearen im-  
migranteen aurka-  
ko irain-laidoak, Go-  
tzon Sanchez eta Coca-  
Colaren artekoa, Poziktibity  
kanpaina, Aita Santuaren bidaia

Palestina eta Israelera... Bazegok, egon,

zertaz jardunik horien inguruan, sakon eta serio jarduteko moduan  
egon ere, baina zerbait arinagoaz idaztea otu zaidak gaur.

Aita Santua aipatu dudanez, zergatik ez jardun, adibidez, apaiz edota  
apaizgai kontuez, Angel? Izan ere, joan den larunbatean, seminarioan kur-  
tsoko izan ginenon urteroko bazkaria izan genian —Zuek ere baduzue ohi-  
tura Bizkai aldean, ezta?—, eta berriketaldian, jakina, ez zuan orduko pa-  
sadizo eta anekdotarik falta izan. Batzuk barrez lehertzeokak.

### “Aita Santua aipatu dudanez, zergatik ez jardun apaiz edota apaizgai kontuez?”

Xelebreenak eskola-orduko kontuak izan zituan, jakina. *Eskritura San-  
tuak* irakasten zituen irakaslearenak onenak. Hona hemen bat.

Behin, programak hala eskatuta, “hitzen zentzu biblikoaz” jardun zian  
irakasle hark; alegia, Bibliako hitzak, sarri, ez direla hitzez hitz ulertu behar,  
bigarren adiera batean baizik. Adibideak ematen hasita, horra non dioen Bi-  
bliako pasarteren batean esaten bada norbaitek “gizasemerik ezagutzen ez  
duela”, sexu-harremanik izan gabea dela ulertu behar dela. Edota beste  
honetan, non Bibliak dioen Noe, mozkorturik, larru gorriak agertu zela bere  
alaben aurrean, eta haiek “oinak ikusi” aitari, ulertu behar dela “*sus partes  
pudendas*” ikusi zizkiotela... Hor non altxatzen duen eskua Garmendia dei-  
turako ikasle batek (gure Iñazio ez den beste batez ari nauk) eta galdetzen  
dion irakasleari: “Eta nola ulertu behar da Jesu Kristok azken afarian bere  
dizipuluei oinak garbitu zizkiela esaten den pasartea: hitzez hitzeko adieran  
ala zentzu biblikoan?”. Apaizak: “*Cállese, Sr. Garmendia*”.



Anjel  
Ugarteburu

Astelehen eguerdi aurretxoan hasi nok  
hireari jarraipena ematen eta hara non en-  
tzun dudan gure aspaldiko erregeak jarle-  
kua semeari lagatzea erabaki duela. Mi-  
nutu bateko iruzkinik ere merezi ez duen  
berria, baina asmakizun horretatik majo  
bizi direnek erabiliko juek laudorioa, erabi-  
liko juek intzentsua, lurrina euren jarlekue-  
tara ere helduko dela jakitun. Ailegi gureztat  
ere onuraren bat ekarri, dena den!

Noan gai atseginagoetara. Loiuako aireportura  
joaten naizenetan edo hegazkinez iristen naizenetan, nire ikas-  
tetxe izandako seminarioaren aurretik edo gainetik pasatzen  
nauk eta akorduak berehala pilotzen dituk, barreari lotuak as-  
kotan. 1954 hartan ere pasatzen zituan hegazkinak eraikuntza  
haren gainetik, burrundara galantaz. Klaseak ematen zihar-  
duenak eten egin behar izaten joan bere jarduna hegazkina  
urrundu arte. Irakasleak galdera bat egin eta erantzunik jakin  
ezean, ederto etortzen zuan zarata hura.

### “Akorduak berehala pilotzen dituk, barreari lotuak askotan”

Hainbeste dituk anekdotak, ez dakidala zein aukeratu ere.  
1960tik aurrera, filosofia ikasten hasi nintzeneko bat ekarriko  
dut hona, ikaskide izandako batekin gogoratutako azkena bai-  
ta berau. Alemanian, Suitzan, Frantzian... ikasitako zenbait ira-  
kasle izan genduzan; haietako asko onak, egia esan. Histo-  
riako klasea zuan, Aula Magna hartan. Bi kurtsoko ikasleak ba-  
tera, 70 ikasle-edo, eta irakasleak, bibliografia luze bat eman  
ondoren, Burckardt ikertzailea jarabilan ahotan eta alemanez  
bota joan parrafada bat. Argia itzali zuan bat-batean.

- “*Genial, señor Munarriz!*”, irakasleak, argi-giltzaren ondo-  
an eserita zegoenari. *Encienda la luz que vuelvo a los apuntes.*

‘Zozoa eta belea’-ren oin-ohar gisa edo, komeni esatea gure idatziak Espainiako errege Joan Karlosen abdikazio-berria baino lehenagokoak direla.



II. URTEURRENA

## JOSEBA BILBAO GARATE

2012ko ekainaren 4an hil zen, 48 urte zituela.

“Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai...”



# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikuniki.

COORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrugarte, Mikei Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## Argitaratzailea:



## Laguntzaileak:



elgoibar  
biZi-biZiKa!



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikuniki. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Maiatzak 31tik ekainak 8ra Gure Esku Dago!

Elgoibako Gure Esku Dago taldetik eskerrak eman nahi dizkizuegu joan den larunbateko ekitaldia antolatzen lagundu zeniguten guztioi, trikitilari, panderojole, bertsolari eta kantuzaleei, burutxiki handiak ezagutzera eman zituzten haurrei, mahaiak, kanbioak, musika ekipo eta eskulanetarako materiala utzi zenizkiguten tabernari eta elkarteei, eta zer esanik ez, Kalegoen Plazara gerturatu zineten herritar guztioi. Denon artean jai xumea hura handi eta eder bilakatzea posible izan zelako.

Joan den asteburuko beroketa eta gero, ekainaren 8an, Bergaran gure kilometroa topera betetzeko prest gaude, denon artean eta garaiz iritsita, giza kate erraldoia osatuko dugu!

Gure eskualdeari dagozkion hiru kilometroetarako momentuz salduta dauden metro kopurua honakoa da:

- 31. kilometroa (Eibar): 1.000 metro.
- 32. kilometroa (Elgoibar eta Soraluze): 983 metro.
- 33. kilometroa (Mendaro, Deba eta Mutriku): 934 metro.

Gaur ostirala, hilak 6, Kalegoen Plazan jarriko dugun mahaian oraindik metroa (ez da beste materialik egongo) eskuratzeko aukera izango duzuela gogoratu agurtzen gara.

**Elgoibarko Gure Esku Dago** ☪

### Eskola publikoaren alde

Colegio Público Nacional Mixto Pedro Muguruza. Hori zen ikasi nuen Pedro Muguruza ikastetxearen izen osoa. Garai gogor hartan hezkuntza publikoa Madriletik kontrolatzen zuten, eta herrian ez zegoen oso ondo ikusita ikastetxe publiko hura. Ezta ikastetxe hartako ikasleen artean gehien goa ginen etorkinen seme-alaba erdaldunak ere. Orduan, lagun euskaldun baten aita, eskola konseiluko kidea zena, ikastetxeen arteko bileretara joan ohi zen. "Kaka zaharra bezala tratatzen gintuzten", kontatu zidan urte batzuk beranduago.

Urte mordoia pasatu da ordutik. Baina, nahiz eta asko aldatu diren gauzak, herriko ikastetxe publikoa, hots, Herri Eskolak, ahatetxo itsusia izaten jarraitzen du.

Hala ere, guraso izateko garaia heldu zitzaigunean ez genuen inongo zalantzarik eduki etxean. Herri Eskola aukeratu genuen. Hezkuntza pu-

bliko duin bat nahi izanez gero, horri eman behar diogulako babes.

Baina urte hauetan zehar herrian jasotako babes eskasari aurre eginez, hainbat guraso eta irakasle egindako lanari esker aurkitu dugun hezkuntza ez da duina bakarrik; euskalduna, kalitatekoa, anitza eta integratzailea ere bada.

Asteburu honetan Balmasedan ospatu zen Euskal Eskola Publikoaren Jaia. Eta han, Herri Eskolako Kalamua guraso elkartearen ordezkariak lekuak hartu zuten 2015eko jaia Elgoibaren ospatzeko, lanean jarraitzeko prest daudela frogatuz.

Animo eta horrela jarraitu! Gure Eskola gustatzen JATAko, gustatzen JAKUko!

E.F.

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

## Erretratu zaharra



**1960**

Aste honetako erretratu zaharra Jesusa Kortaberria *Untzonek* ekarri du BARRENERA. 1960an ateratako argazkia da, Elgoibarko San Bartolome jaietan. Jantzeragatik, Txiki Eguna izango dela dirudi, txuriz jantzi-ta ageri baitira argazkiko protagonistak. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian agertzen direnak.

**Goian:** Antonia Larreategi, Begoña Arizmendi eta Jesusa Kortaberria. **Behean:** Juan Jose eta Maria Pilar Etxeberria.


II. URTEURRENA

## JOSEBA BILBAO GARATE



2012ko ekainaren 4an hil zen,  
48 urte zituela.

*Koadrilan gaude zerura begira  
dena izarrez betea.  
Ekainak 4 heldu da, eta  
hau gauerdia tristea.  
Joseba gogoan, urtero bezala.  
Hain zinen trebea,  
gure bihotzean betiko zaude,  
lagun maitea.*



Koadrilakoak

## 32 tabernak parte hartuko dute Elgoibarko pintxo lehiaketan, iaz baino zazpi gehiagok

Ekainaren 10etik 13ra izango da aurtengo lehiaketa

**H**erriko ostalaritza sektorea sustatzeko asmoz, Elgoibarko Pintxo Lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak, seigarrenagoz. Herritarren artean estimazio handia du lehiaketak, eta baita tabernarien artean ere. Hala, urtetik urtera gora egin du lehiaketan parte hartu duten tabernarien kopuruak, eta aurreko sekula baino gehiago izango dira: 32. Honako hauek dira parte hartuko duten tabernak: Lerun, Aterpe, Otzak, Sigma, Ibai-Ondo, Gautxo, Kaia, Maala, Pilon, Malape, San Roke, Salento, Tantaka, Jai-Alai, Usua, Larre, Iriondo, Gran Siglo, Viento Sur, King-Kong, Orbea, Gabi, Iturri, Ametsa, Lanbroa, Txarriduna, Marem, Ilunpe, Xagua, Urkiola, Mahats eta Gorbea.

### Hiru sari

Aurtengo lehiaketan hiru sari banatuko



dituzte. Batetik, epaimahaiak aukeratuko du Elgoibarko pintxorik onena; bestetik, baserrikoa saria emango diote baserriko produktuekin eginiko pintxo onenari, eta azkenik herritarren saria egongo da, pintxoak dastatzen duten herritarrek emandako puntuekin emaitzarik onena jasotzen duen pintxoak egin duenarentzat. Botoa ematen duten guztien artean bi lagun-

tzako dastatze-menua zozketatuko dute Belaustegi jatetxean.

Pintxo lehiaketa martitzenean hasiko da, 19:00etan. Eguazten eta eguenean ere 19:00etatik aurrera egongo da lehiaketako pintxoak dastatzeko aukera, eta barixakuan goizez zein arratsalde, 12:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik 22:00etara.

## Elgoibarko Udalak ia bikoiztu egin du Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako emandako dirua

Elgoibarko Udalak jakitera eman duenez, nabarmen egin du gora Gizarte Larrialdietarako Laguntza (GLL) eskatu dutenen kopuruak azken hiru urteetan: 2011n, 79.303 euro zuzendu zituzten GLLetara 81 familiari lagundu ahal izateko; eta, 2013an 154.245 euro eman dituzte, 108 familiari laguntzeko. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) Eusko Jaurlaritzaren menpe daude, nahiz eta gero herriei dagokien horiek onartu, ezeztatu eta ordaintzea. Jaurlaritzak emandako dirua eskaerei erantzuteko nahikoa ez bada, falta den dirua Udalak jartzen dute, horretarako aukerarik baldin badute. Elgoibarko alkate Alfredo Etxeberriak azaldu duenez, Jaurlaritzak mantendu egin du bere ekarpena azken hiru urteetan eta

2014an aurreko urteetan baino gehiago jarriko du, ia 89.000 euro. Hala eta guztiz ere, ez da eskaerari erantzuteko nahikoa. “Krisiaren eraginez familia asko gaizki pasatzen ari direla erakusten dute datu hauek, eta Udalak erantzukizunez jokatu behar du”, esan du Etxeberriak. 2014rako 35.000 euroko diru-partida aurreikusituz aurrekontuetan GLLetarako, baina hortik gora behar dena jartzeko moduan izango direla azaldu du alkateak.

### Etorkinak eta bertakoak

Kalean maiz entzuten duten zurrumuru bat gezurtatu nahi izan du Etxeberriak gai honen harira. “Kalean entzuten da atzerritarrek jasotzen dutela laguntza guztia. Bada, hori esa-

ten dutenei argi eta garbi esan nahi diet GLLak jasotzeko baldintzak betetzen dituztenek bakarrik jasotzen dituztela laguntzak, eta baldintzak unibertsalak dira, guztiontzat berdinak; hor ez dago inolako diskriminaziorik”. Ildo beretik, datuei erreparatu, aldatzen ari den joera baten berri eman du alkateak. “Lehen bertakoek egiten zituzten eskaera gehienak, baina 2012tik hona atzerritarrek egiten dute eskaera gehien. Krisiarekin gaizkien pasatze ari direnak dira-eta”. Elgoibarrek 11.551 biztanle ditu, eta 850 dira erroldatutako etorkinak, biztanleriaren %7,35. 2013an 59 familia etorkinek jaso zuten Gizarte Larrialdietarako Laguntza. Lagundu zituzten bertako familiak, berriz, 49 izan ziren, Udalak emandako datuen arabera.

## Egitasmoa 'Euskadi gastronomika'



*Euskadi Gastronomika* ekimena sortu dute Eusko Jaurlaritzak eta Debegesak, Debabarrenean kalitatezko turismo gastronomikoa sustatzeko. [www.debabarrenaturismo.com](http://www.debabarrenaturismo.com) atarian gastronomia atal berria sortu dute, eta horrez gain, hainbat esperientzia gastronomiko egingo dituzte ekainean Eibarren, Elgoibarren eta Mendaron. *Txokolatea deskubrituz* saioa egingo dute Mendaron, eta *TexMex* saioa Belaustegi jatetxean. Tailer horietan parte hartzeko 943 820 110 telefonora deitu behar da.

## Irudia Gure Esku Dago



Gure Esku Dago eguna ospatu zuten joan zen zapatuan Elgoibarren, eta beste hainbat ekitaldiren artean, giza katea osatu zuten Kalegoen plazan. Ekainaren 8an Durango eta Iruñea batuko dituen giza kate erraldoirako entsegu modukoa izan zen zapatukoa. Dena prest dago datorren domekako giza katerako, eta eskuz esku oratuta beteko dituzte euskal herritarrek Durango eta Iruñea arteko 123 kilometroak. Debabarreneko herriei Bergarara joatea egokitu zaie. Elgoibartarrek 32. kilometroa bete beharko dute soraluzetarrekin batera, eta Mendarok berriz, 33. kilometroan izango du lekua, Deba eta Mutrikurekin batera. Nahi duenak gaur arratsaldean ere izango du domekarako metroak erosteko aukera. 17:00etatik 20:00etara jarriko dute informazio mahaia Elgoibarren, Kalegoen plazan, eta 18:30etik aurrera, Mendaron, udaletxeko plazan.

## Danborradaren entsegua egingo dute egunean

Trinitate jaietako danborradako arduradunek jakinarazi dutenez, datorren egunean kalean egingo dute danborradarako azken entsegua. Partaide bakoitzak non kokatu behar duen jakiteko, eta jaietarako motorrak berotzeko saioa izango da. 21:00etan hasiko dira danborhotsak Kalegoen plazan, eta plazan bertan joko dituzte danborradako hainbat pieza. Ez dute kalejirarik egingo, baina egun handirako presatzeko baliagarria izango da azken entsegu hori.




## Milagrorra irteera, hilaren 19an

Zaharren Egoitzak Milagrorra irteera antolatu du ekainaren 19rako, eta bide batez, Alfaro herria ere eza gutuko dute. Egoitzako bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 40 euro. Izena emateko Zaharren Biltokira jo behar da.

## Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren saioa, uztailearen 5ean

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Mendarora etorriko dira uztailearen 5ean, *Bizipoza* izenburuko ikuskizunarekin. Mendaroko ikastolako jolastokian eskainiko dute ikuskizuna, 19:00etatik aurrera, eta sarrerak Morroskillo dendan jarriko ditu salgai Mendaroko Udalak, 7 euroan. Panpoxa furgonetan abiatuko dira pailazoak, Chernobildik datorrien laguna jasotzera, baina ibilgailuaren morrorra matxuratuko zaie, eta bidean lagun ugari egingo dituzte. [www.katxiporreata.com](http://www.katxiporreata.com).

# FELIX ETXEBERRIA EUSKALTZALEA



**“Egin dudan guztia euskararen eta euskaltasunaren alde egin dut”**

Felix Etxeberria *Parapani* buruzko liburu biografikoa idatzi du Xabier Lasa andoaindarrak, Etxeberria beraren suinak. *Parapanen* haurtzaroa eta gaztaroa, kirolerako izan duen grina, eremu politikoan euskaltasunaren alde egindako lana, Danobat eta Etxepe lantegien sortze prozesuan izandako aitzindaritzeta eta euskalgintzan egindako ibilbide emankorra bildu ditu, besteak beste. **BARRENEK** protagonista bera eta idazlea batu ditu elkarriketa honetan. Liburua ekainaren 13an aurkeztuko dute Elgoibarko musika eskolako auditorioan, 19:30ean, eta Elgoibarko Izarran eta Pitxintxu eta Gorostiza dendetan jarriko dute salgai oraingoz.

**Ainara Argoitia**

‘Parapango akuilua’. Gustatu zaizu?

*Parapango* izarra jarri zioten hasieran, baina niri ez zitzaidan gustatu. Izarretik ez daukat ezer. Langilea izan naiz ni, morroi.

Morroi berba sari aipatzen duzu liburuan. Elgoibarren hainbat gizarte ekimenetan aurrea hartu baduzue horregatik izan dela diozu. Ikastolen adibidea aipatzen duzu.

Hala da eta. Eibarren, adibidez, antolatuagoak izan dira ekimen gehienetan, intelektuala-goak; Elgoibarren morroiak ginen denak, eta horregatik uste dut nik eraiki genuela aurretik ikastola. Ordurako Eibarren bazuten ikastola moduko eskola txiki bat, eskola pribatu bat, Jose Antonio Amilibia falangista zuena jabe. Gero guraso elkarteak hartu zuen bere esku eskola [1968an] eta gure esperientziatik ikasi nahi izan zuten. Eibarrera, Mendarora, Markinara, Ondarroara... Carlos Santamariak eskatu beste lekutara joan ginen, gure ereduaren berri ematera.

Baserrian jaio eta hiru urte egin zenituen eskolan. Hamaika saltsa edo proiektutan parte hartu zenuen, hala ere. Zer ez ote zinen izan eskola gehiago izan bazenu!



Ni oso motza izan naiz eskolan. Hiru urte egin nituen, eta sinatzen ere ez dakit ikasi nuen! Eskolan hasi orduko irakurtzen banekien, hori bai. Hala ere, nahikoa berandu hasi nintzen irakurtzen ere, 8 bat urterekin. Zuk diozun saltsa horrek denak, hala ere, gero izan ziren, kalera jaitsi ginenean. Lagunek taile-rrak-eta ipini zituzten eta neuk ere inbidia, badakizu. Eskolaren falta, baina, beti izan dut. Hilaren azkenean kobratu ahal izateko sinatzeak ere sekulako bildurra ematen zidan neri. Hori bai, kontra egin behar zenean, edozeini egiten nion kontra, intelektualei ere bai. **Ameriketara joateako asmoa ere erabili zen nuen buruan. Zerk tentatu zintuen?**

Tentatuta egon nintzen bai. 26 bat urte izango nituen. Jarben nenbilen lanean, eta irabazi ere ondo egiten nuen, baina badakizu zer diren gaztearen kontuak. Zerbait gehiago nahi nuen. Ameriketara gehiago irabazten zela entzuna genuen, eta nire asmoa hiru bat urte han egin eta etxera itzultzea zen. Hala, Donostiako Sireica bidaia agentziara ere hiru aldiz joan nintzen artzain izateko zerrendan apuntatzera, baina guretzat ez zen sekula lekurik egon. Ameriketara lagun ona izango nuelakoan, ahoko-soinua erosteko ere eskatu nion Afrikan soldaduska egiten ari zen ezagun bati. Zapuztu zen nire amets hura, baina zer diren gauzak! Sasoi hartantxe sortu zitzaizgun Danobat tailer-kooperatiba sortzeko ideia. Barixaku batean izan zen. Jarbeko lan jarduna amaitu genuenean, Karmelo Larrañaga lankideak kiniela eskuan hartu eta harekin milioia irabaziko zuela bota zigun. 'Zer egingo dugu sariarekin?', galdetu zigun, eta nik erantzun: 'Tailerra ipini'. Biharamuna zapatua zen, lanerako eguna, eta halaxe esan nion: Ez daukaku kiniela asmatu beharrik, Karmelo. Gutako bakoitzak diru pixkat ipini eta sortuko dihagu tailerra'. Eta hasi nintzen ingurukoak konbentzitzen.

**Danobat aipatu duzu. Badakit minduta zaudela Danobateko jende batekin. Zergatik?**

Ez nago konforme Danobaten sorreraren inguruan eman duten bertsioarekin. Danobaten 50. urteurreneko liburuarekin hasi zen dena. Pasatu ziguten liburuaren ziriborroa eta ikusi nuen gauza batzuk ez zituztela ondo jasotako. Idatzita pasatu nizkien ekarpen batzuk, eta ekarpenen artean zegoen Jarbeko taile-rraren egin zen kinielaren kontua jasotzeko eskaera, tailerra sortzeko proiektua hantxe baitago. Beste kontu batek ere haserretu nien.

duen. Kooperatibismoaren historia Arrasaterara lotzen zuten, baina esan nien han hasi zirenerako hemen hasita geundela. Ez zituzten nire ekarpenak aintzat hartu, eta ikusi nuenean ez zidatela kasurik egin nahi zera eskatu nien: ez jartzeko nire argazkia fundatzaileei eskainitako orrialdean. Hori oraintsu izan da, duela pare bat urte. Esan nien kontra egiteko asmoa baneukala eta egingo nuela idatziren bat, eta berandu, baina orain daukat joateko asmoa, liburura hartuta.

**Guraso konprometitu, ekintzailea eta kirolari amorratua ere izan zara. Nahaste-Borraste lasterketan parte hartu zenuen, eta 64 urterekin Behobia-Donostia lasterketan. Zure adineko gutxi ikusiko ziren korrika ba garai haietan, ala?**

Gutxi. Adinean aurrera nindoala etxekoek ere kargu hartu izan zidaten noizbait, nire adinean korrika egitea osasunarentzat ezin zela ona izan esanez. Baina gustura ibiltzen nintzen, eta segi nik! Zahartzaroak ez du barkatzen, hala ere, eta laga egin behar izan zion korrika egiteari. Oinez hasi nintzen gero. Egunero kilometro dezente egiten nituen.

**“Ez nago konforme Danobaten sorrerari buruz eman duten bertsioarekin”**

**Desafio zalea eta erronkak jarri zalea ere izan zara. Zein da gogoan duzuna?**

Bai. 80 bat urterekin, Elgoibarko etxetik Madariaga auzorako joan-etorria 80 aldiz egiteko erronka jarri nion neure buruari. Goiz irtean nintzen etxetik eta errepidez egiten nuen hamasei bat kilometroko bidea. Orain ez naiz gauza, baina. Orain ibiltzera joaten naiz, Mintxeta ingurura.

**Korrika, bizikletan, pilotan... Zertan nabarmendu zinen?**

Nabarmendu inon ere ez ni. Pilotan eta eskiatzen nahiko ona nintzen, hori bai.

**Eskiatzen eta eskalatzeko ere ibilitakoa zara,**

**bai, gazte denboran. Hori ere ez zen ba oso ohikoa izango zure gazte denboran, ala?**

Soldaduska izan nuen horien berri. Bi urteko soldaduska egin nuen [1947-49], eta instrukzio aldia amaitu nuenean eskalatzaileren sailera destinatatu ninduten. Irunen egin nuen soldaduska, eta Jaizkibel aldean eta Aiako Harrietan ibiltzen ginen gehien. Eskiatzera, berriz, Lomos de Orosera (Soria) joaten ginen. Txapelketa bat edo bestetara ere aurkeztu gintuzten.

**Zu bezala soldadu izan ziren denek ez zuten zuk besteko zortea izango. Zorionekoa izan zinela uste duzu?**

Niretzat ez zen txarra izan soldaduska, baina nirekin batera egon zirenetako batzuei ez zitzaien goxoa egin. Ni neu ez nintzen geldi egotekoa eta pozik ibiltzen nintzen. Korrika ere egin nuen. Behin Burgosera ere eraman ninduten, aukeratuta. Dena den, soldaduskan sufritutako gazteak gehiago dira. Umilazioak, *nobataidak*... Euskaldun izate hutsagatik itzel sufritu behar izan zuten askok.

**Mendirako joera handia izan duzu, eta grina berezia mendizaleatasuna haur eta gaztetxengan sustatzeko. Zer dela eta?**

Beti gustatu izan zait mendiak ematen duen askatasun hori. Mendian aske sentitzen ginen, ez genituen behintzat guardia zibilak atzetik izaten, eta euskal esentzia gordetzeko bidea topatu genuen han. Ikastolako umeekin sarri joaten ginen Sargoatera eta Idotorbera. Jolasa zen eta da umeentzat gauzarik politena eta garrantzitsua da gustuko duten horretan euskaraz bizi daitezkeela erakustea. Asko, ikaragarri, ibili ginen gu mendian, Imanol Laspiurrekin, Juan San Martinekin, Alfonso Irigoienekin, Serafin Basaurerekin... Gu baino gehiago ziren haiek gai askotan eta gustura ibiltzen ginen haien inguruan. Mendira joan, euskal kantak kantatu, eta bilera sekreturik egin gabe, alai-alai bizi ginen. Mendia oso garrantzitsua izan da euskal kulturgingintzan, mendirako bueltetan gauza asko egosi direlako. Aske ginen mendian. Urtean behin Urbiara joaten ginen ekitaldi politiko antzeko bat egitera, eta han 'Gora Euskadi' oihukatu eta urte gutzirako gasolinarekin bueltatzen ginen etxera. Emaztearekin ere asko ibili naiz mendian. Birritan egin genuen mendi gailurren *zentenario* bilduma [1988tik1993ra].

**Ez zenuen pentsatu Morkaikon sartzerik?**

Morkaikorekin irteera askotan izan nintzen, baina sekula ez nuen lanik egin barruan.



Gehiago zergatik ez genuen egin? Astirik ez edo.

**Espiritu abenturazalea ere izan duzu. Bitxia egin zait 60 urterekin Nairobitarra autobus mitikoarekin ere hainbat bidaiara egin zenituztela irakurtzea. Ze oroitza daukazu?**

Oso ondo pasatzen genuen. Lehenengo bidaiara Andaluziara egin genuen 60 urte beteta, eta Eskoziara, Norvegia, Herbehereetan, Irlandan... ere ibili ginen losu Iztueta eta Angel Ortizen autobus hartan. Geu ginen zaharrenak, eta lehenengoz ikusi gintuztenean pentsatuko zuten zerbait beharbada, baina oso ondo konpondu ginen.

**Baserrikoa zara, baina arrantzarako ere afizio handia izan duzu. Nolatan?**

Ume-umetatik gustatu izan zait. Umetan, San Lorentzoko errekan ibiltzen nintzen. Gero, Aia edo Markina aldera joaten hasi nintzen, eta geroago etorri zitzaidan kostaldera joateko aukera. Eta itsasoratze gogoa ere piztu zitzaigun, jakina. Txalupak, baina, garestiak ziren, eta geuk egitea erabaki genuen. Karmelo Loiola eta bion artean egin genuen txalupa, Elgoibarren, baina itsasoratu behar genuenean konturatu ginen baimen ofiziala behar genuela horretarako. Getariako konstruktore bati [Irigoi] erosi genion motorra eta tratua egin genuen berarekin: motorra erosiko geniola, baina paperetan txalupa berak egin zuela jartzea. Oso txalupa polita zen: *Kixmi*. 80 urte eginda laga nuen txalupa. Ezin nituen ondo gobernatu txaluparen balantzak, eta saltzea erabaki nuen. On egiten zidan neri itsasora joateak.

**Frankismoko garai gaiztoenetan euskararen**

**alde jardun zenuen, tailerra sortu zenuten, zure adinekoak karta-jokora emanda zeudenean Europa ezagutzera abiatu zinen autobusez... Abenturazalea izan da Felix?**

Ez dakit, baina arriskua neurtzen, behintzat, ez dut jakin. Sekula ez dut atzera egin. Eskapada handiak ere egin ditut mendian emaztearekin. Akordatuta bakarrik...

**Politikari buruz diozu ez zarela sekula lehenengo lerroan ibili, baina EKIN erakunde politikoa abertzalean aritu zinen, ekintza klandestinoetan, ESEI alderdian... bistan da politikak erakarri zaituela.**

Beti interesatu izan zait, bai, baina sekula ez dut inongo karnetik izan. EKINen ibili nintzen lehenengo [1953an sortu zuten Bilbon hainbat ikasle abertzalek]. Klandestinitatean mugitzen ginen, eta estatu frantsesetik ekarritako liburua irakurtzen genituen. Imanol Laspier, Juan San Martin eta Alfontso Irigoien ziren gure buruzagiak-edo, ETAkideak denak. Guri, baina, sekula ez ziguten halakorik esan. Guk hemengo historia ikasi nahi genuen, eta horregatik joaten ginen batzarretara-eta. Ikaragarri ikasi nuen garai hartan. ETA sortu eta gutxira laga nuen EKIN. ETAn ingurutik agindua jaso genuen ez mugitzeko. Itxura denez, nire eta inguruko hainbaten izenak entzun zituzten komisaldegian, eta horregatik ez mugitzeko eskatu ziguten. *Txibatazoren* bat edo egon zen itxuraz, eta atxiloketa ugari egin zituzten. ETAn ez nintzen sekula sartu, eskaintza egin zidaten arren. Euskararen bidetik jarraitzea erabaki nuen.

**Klandestinitatean ibili zinen huskeria bategatik kartzelan amaitu zenezakeen garaian.**

**Beldurrik pasatu duzu noizbait?**

Estuasun batzuk pasatu ditut, bai. Momenturik gogorrena Burgosko prozesuaren garaian izango zen. 1970eko abenduaren 3an zen hastekoa Burgosko epaiketa *sumarismo* hura. [Hamasei ETAKide epaitu behar zituzten, eta fiskalak sei heriotza zigor eskatzen zituen]. Horren kontra, Elgoibar osoa irten zen kalera. Danobateko langileok ere bat egin genuen mobilizazio deialdiarekin. Plaza bete genuen, baina laster etorri ziren guardia zibilak ere. Neu ere han ibili nintzen, baina halako batean etxera abantatu nintzen, ikastolako zuzendaritza batzordean egonda arrisksuegia begitantzen zitzaidalako ni han harrapatzeak. Etxean egon nintzen, baina lau-bost egun geroago lanera itzuli ginen, lankide batek ohartarazi zidan koartelean nire izena emana zuela norbaitek. Lau anaion izenak eman zituen zelatariren batek, eta lautik bi eraman gintuzten. Sekulakoak eman zizkidaten koartelean, baina eman zidaten jipoia baino gogorragoa zen egoera. Gogorra baino gehiago higuin garria, lotuta dagoen pertsona jotzea azkena delako.

**EKINen ostean, ESEI (Euskal Sozialistak Elkartzeko Indarra) alderdiaren bueltan ere ibili zinen. Zein asmorekin?**

Alderdi politikoak-eta hasi zirenean, ESEI mugimendu klandestino sortu zuten herrian. Ideologia sozialista, ezkertiarra eta euskaltzalea zeukan eta Ikastolan lagun nituenak zebiltzan aurrean, konfiantzazko lagunak. Horregatik batu nintzen taldera. Aurrez EKINen ibilitako batzuk han elkartu ginen berriro. Politikaz asko ikasi nuen. Jende jantziak zuzentzen zuen alderdia. Udal hauteskundeetara aurkeztu ginen, baina alderdi hark ez zuen ibilbide luzea izan. Ez genuen indar handirik izan, eta bertan behera gelditu zen dena [1980ko EAEko hauteskunde ondo-renean].

**Karnetik izan ez arren, ezker abertzalearen bueltan ibili zara beti, ala?**

Ezker abertzalearen mugimenduari bat egin dut gai askotan, bereziki euskararen edo kultur gintzaren inguruko gaietan. Euskadi euskalduntzea lortuko genuela uste nuen, eta politikan egin dudana guztia helburu horrekin egin dut nik, euskararen eta euskaltasunaren alde.

**Muturreko pentsatuko du bakarren batek. Beste batzuek, berriz, eredutzat izango zaituzte, besteak beste Etxepe tailerra sortu ze-**

**nuteneko agirietan euskararen aldeko konpromisoa jasotzeagatik. Zer adostu zenu-ten?**

Dirua irabazteaz gain, euskaraz bizitzea eta ahal genuen neurrian Euskal Herria euskaldutzen lagunduko genuela. Euskaraz funtzionatu genuen, eta harritu ere egiten ziren asko, lan mundua guztiz erdalduna zelako sasoi hartan. Kanpotik erdaraz zetozen gutunak, batez ere Administrazioetik zetozenak, bueltan bidaltzen genituen, *Euskaraz zergatik* ez zigilua jarrita.

**Ez ditugu gerra kontuak aipatu. Ume harri-patu zintuen zu 36ko gerrak, eta memoria historikoa berreskuratzearen aldeko lanean ezagutu zaitugu guk.**

Jardun nuen. Orain ez naiz gauza, eta lagata daukat. Osaba eta anaia galdu nituen nik gerran. Francoren alde egitera behartu zituzten, eta eraman zituzten biak. Anaiak, Estebanek, 17 urte zituen orduan, eta osabak, Joxek, 25 urte. Nik, berriz, 11 urte nituen. Abertzaleak ziren biak. Bueno, abertzaleak baino gehiago euskaltzaleak, kontzientzia politikoa handirik ez zuten izango-eta. Orduan bizitakoak ez ditut ahaztu, eta ez ditut ahaztu nahi.

**Zer balorazio egiten duzu Elgoibar 1936 taldea egiten ari den lanaz?**

Egiten den lana baloratzen dut nik, eta horiek badihardute lanean. Zaila dago, hala ere. 'Besteek egin dezatela' pentsatzen du gaur jendeak, eta agintariak ere ez dute behar beste egiten. Nik badaukat beste hilotz bat lekututa, eta ateratzeko leku errazean dago-ela iruditzen zait, baina baimenak behar izaten dira eta ez da erraza izaten.

**Aipatu ditugu batzuk, baina denak aipatzeko lekurik ez. Gau-eskolak, helduen alfabetatze**

**eskolak, ikastola, Elgoibarko Izarra... Euskalgintzan sendo egin duzu lan. Gaur, nola ikusten duzu euskararen mundua?**

Gaizki. Gu euskaraz irakasten hasi ginenean ez zen euskararik entzuten, baina erdaraz ez zekien euskaldun asko zegoen. Eta babes handia zen hori. Gaur erdaraz ez dakienik ez dago. Arduragabetu egin gara euskaldunok. Lehen, denok egiten genuen 'Ai!' Francoren kontra, eta orain denok isilik. Gainera, ur lasterraren kontra dihardugu borrokan geuk ere, eta azkenerako, nekatu eta ur-lasterrak eramango du euskara.

**Lasaitu egin garela alegia.**

Bai, bai. Euskaltzale amorratu itxurakoek ere erdaraz egiten dute edozeinekin. Nik bost urtean ez dut inorekin egin erdaraz; ez daukat norekin egin ere. Beste batzuek, aldiz, ez ei dute euskaraz norekin egin. Nola ulertzen da hori? Errazegi jotzen dugu erdarara. Askotan entzuten dut jendea Gobernuagatik gaizki esaka, baina ni askotan egoten naiz telebisitari begira iluntzetan eta esango dizut guk herrian egiten duguna edo gehiago ere egiten dutela proportzioan politikariek euskaraz, agerian behintzat.

**Adina ez da inoiz oztopo izan zuretzat. Nola ikusten dituzu gaur azkenekoz Behobia egin zenuenean zeneukan adin antzekoan daudenak?**

Ni joaten naizen leku guztietan neu baino gazteagoak topatzen ditut beti [88 urte beteko ditut urrian]. Sekula ez da berandu ikasteko eta nik animatuko nituzke geldiduten horiek zerbait egitera. Ni neu gehiegia izan naiz beharbada, baina aktibo mantendu behar du pertsonak. Nik 80 urte egin arte *footballing* egin dut. Orain ere eguneroko ibiltzen naiz

bi orduz, eta irakurri sekula baino gehiago egiten dut. Pello Salabururen *Errateko nituenak* irakurtzen dihardut orain. Historia libururuak irakurtzeko gai ez naiz, hori bai. Ez daukat horren buru ona.

**Makina-erremintan ere jardun zara. Nola ikusten duzu gaur tailer mundua?**

Tailerrak oso ondo preparatuta daude, baina gasolina falta da.

**Gasolina diozunean zertaz ari zara?**

Dirua eta kemena dira gasolina.

**Politikan, Europako hauteskundeak pasatu berri dira eta etzi Gure Esku Dagok antolatuta, giza katea egingo da erabakitzeke eskubidearen alde. Orain bost minutu eskas jakinarazi dute, bestalde, Espainiako erregeak abdikatu egin duela. Zer balorazio egiten duzu?**

Beste haize bat badago, ezta? Gauzak pixkat zuzentzen dauden errezeloa daukat. Baietzear nago. Zuzenduko da hemen egoera, baina kostatuko da denak asetzeko besteko konponbidea topatzea. Ez daukagu lagun ederrak inguruan!. Lehenengo eta behin, geu elkartu behar gara, gainera. Askotan pentsatzen dut dirua kobratzeko bakarrik daudela asko politikagintzan. Nahiago nuke hemengoak elkartu eta kanpokoei beldur pixkat sartuko bageniel.

**400 orrialdetik gora ditu libururuak. Zerbait laga duzu esan barik?**

Gauza asko. Baina akordatzen naiz hemen zerbaitetaz eta pentsamendu hori etxera eramateko gai ere ez naiz, beraz jai dago. Bi-hiru bider irakurri dut, eta akats batzuk topatu ditut, baina neuk ez nuke hobeto jasoko. Lan izugarria egin du Xabierrek.



## XABIER LASA, liburuaren egilea

**Nola eta noiz sortu zitzaizun liburu hau idazteko gogoa?**

Andoaingo euskalgintzako eta 36ko gerrako kontuen inguruan jardun dut lanean, eta konturatu nintzen Felix Etxeberria bazela pertsona bat bi gai horien inguruan asko esateko zeukana. Frankismoa bera eta garai hartako euskalgintza sutsu hura oso gutxi dago ikertuta. Egin dira lan batzuk apaizen eta *ilustratu*en inguruan, baina Felixen antzera euskalgintzan jardun zuten oinarriko soldadu guzti haien inguruan ezer gutxi dago jasota. Herri guztietan egon dira Felixen antzeko figurak, eta Elgoibarren ere badaude beste batzuk, baina nik Felix nuenez gertuko, iruditzen zait ezin nuela bere ibilbide hori jaso gabe utzi. Hurrengo belaunaldiak izan behar dute horren berri, eta nahi nuen gure semeak ere ezagutu zezan bere aitiak egin zuen lan guztia. Neronek ere jakin nahi nuen zerk bultzatu zuen abentura guzti haietan sartzea.

Bistan da ordu askotako lana dagoela hemen. Zer egin zaizu zailen?

Etzarri-Aranatzeko kanpinera joaten ginen udaldian, eta beti eramaten nuen grabagailua aldean. Eta hantxe hasi nintzen, orain bost bat urte. BARRENak goitik behera irakurri ditut eta orduak eta orduak pasatu ditut Andoingo Rikardo Arregi hemerote-kan, Felixen inguruan argitaratu di- ren guztiak goitik behera irakurtzen. 80 urtean agiri eta paper ugari bildu eta jaso ditu Felixek etxean bertan ere eta milatik gora euskarazko li- buru ere baditu. Eta bota ere doku- mentazio asko bota izan du, apalak beteegi ikusten zituelako. Lanik handiena horiek guztiak errepara- tzea izan da. Hori, eta informazioa lortzeko, Felixi tiraka ibiltzea. Jen- dea xaxatzen gaitasun handia era- kutsi badu ere, oso lotsatia da Fe- lix. Ez da hitz askokoa, eta tira eta tira aritu naiz, gai beraren inguruan galdetu eta galdetu. Zeuk ere topatuko zenituen kontu bitxi asko Felixen ibilbidea

aztertzen hasita. Zer egin zaizu delgarrien?

Bere ekintzailetasuna. Ez da jende arteko gizona, eta harrigar- ria da jendea konbentzitzeko izan duen gaitasuna. Felix ez da pertsona eskolatua eta konplexu hori beti izan du, baina euskararen aldeko lanean ez da sekula kikildu. Ilusioak eta ametsak betearazteko kemen handia erakutsi du beti. Baserri- ko semea eta eskolan apenas ibilitakoa izan da Felix, eta sarri ibili da bera baino jende jantzia- goarekin. Haiengandik ere asko ikasi duela esango nuke, baina eskolagabea izanagatik sekula ez da atzean gelditu. Irakurtze- koak dira *Zeruko Argian* idatzi zituen kronikak-eta, eta eman dituen erantzun zorrotzak. Hori ere izan du-eta. Euskararen al- de egiteko kritiko izan behar duela pentsatu duenean kritiko izan da, lagunak galtzeko arris- kua izan arren. Kritikagarria zen guztia kritikatu du. Ekintzailea eta ameslaria da Felix.

**“Ilusioak eta ametsak  
betearazteko  
kemen handia  
erakutsi du beti Felixek”**

**12. EDIZIOA**  
**IMH SARIAK** ekainak 19 18:00etan

ekainaren 9a baino lehen  
proposatu ikasle ohi aipagarria  
[www.imh.es](http://www.imh.es) webgunean!

ENPRESA B A B E S L E A K

 **MH** Makina Erresisten Institutua  
Instituto de Miquina Herronietza

 **Hoffmann Group**  
Tools to make you better

 **PIXEL SISTEMAS**

ENPRESA K O L A B O R A T Z A I L E A K

AGME- DESARROLLO DE PROYECTOS HIDRAULICOS - FAGOR AUTOMATION - ECENARRO  
ENGRANAJES GRINDEL - ETXE-TAR - GURUTZPE TURNING SOLUTIONS  
ILS INDUSTRY LANGUAGE SERVICES - JUARISTI - KENCI - KONDIA - LAIP - MAPFRE ERMUA  
MAZA - ONA ELECTROEROSION- RICOH - SAGE LOGIC - SAMSIC IBERIA

IKASLE OHI AIPAGARRIA / IKASLE AIPAGARRIA / DUALEKO IKASLE AIPAGARRIA / ELGOIBARKO IKASLE AIPAGARRIA  
**PROPOSATU IKASLE OHI AIPAGARRIA / SARIAK WEB GUNEAN**

 **IMH Elgoibar HEZIKETA**  
**ZIKLOAK**  
Matrikula: uztailak 9-16

 **Ingeniaritza DUALA**  
UNIBERTSITATE ESKOLA  
**Azken Informazio Saioa:**  
Ekainak 11 17:00etan

[www.imh.es](http://www.imh.es) - [imh@imh.es](mailto:imh@imh.es) - Tel.943744132 - Elgoibar

# Elgoibarko Izarrak etorkizunerako oinarriak eta zutabeak erabaki ditu

*Elkartearen egitekoa Elgoibar euskalduntzea izango da, orain arte moduan, baina egiteko moduak egokitu eta aldatuko ditu*

**5**0 urte Elgoibar herri euskalduna izateko lanean eman ondoren, Elgoibarko Izarrak ziklo berri bati ekin dio 2014an. Elkartearen egiteko nagusia Elgoibar eta elgoibartarrak euskalduntzea izango da, hori ez da aldatuko, baina gure herria euskalduntzeko metodologia edo estrategiak dezente aldatuko dira.

*Atzera begira, aurrera egiteko* balorazio-lanarekin ekin zion elkar-teak ziklo berria prestatzeko prozesuari. Lan horretan 1990etik 2010era egindako lanaren balorazioa egin zen, eta, besteak beste, balorazio-lanean identifikatutako hutsuneak bete nahi dira ziklo berrian.

Ia bi urteko prozesua izan da, eta bi dokumentutan jaso dira egindako gogoetak eta hartutako erabakiak:

- **Oinarri Filosofikoak:** Dokumentu honetan, besteak beste, elkartearen egitekoa, izana eta izena, printzipioak eta balioak, bazkideen parte-hartze-ko aukerak, eta antolaketa-eredua jaso dira. Oinarri horien gainean erai-ki nahi da Elgoibarko Izarraren etorki-zuna.

- **Plan Estrategikoa:** Bigarren doku-mentu honetan zutabeak daude,



*Bi urteko gogoeta-prozesua izan da, eta 80 bazkide inguruk hartu dute parte.*

elkartearen jardunari eutsiko dioten zutabeak edo erronkak. Elgoibar zelan euskaldundu nahi dugun zehaztu dugu Plan Estrategikoan eta, besteak beste, hurrengo hiru urteetarako erronkak, estrategiak, helburuak eta ekintza-planak onartu dira.

Prozesuak bi urteko iraupena izan du eta 80 bazkide inguruk hartu

dute parte bi dokumentuak idatzi eta onartzeko prozesuan. Orain, onartutakoa poliki-poliki martxan jartzea izango da elkar-teak egin behar-koa. 50 urteko jardunak ematen duen esperientziarekin ekingo zaio ziklo berriari, eta helburua etorkizun-ean Elgoibar herri euskalduna izatea da.

*Elgoibar herri euskalduna izateko 50 urteko herri-ahaleginaren ondoren, Elgoibarko Izarrak ziklo berri bati ekin dio.*

Gehigarriaren arduraduna: Imanol Larrañaga Juaristi / Diseinua eta maketazio-lanak: Zaloe Arnaiz Ibarguren

# OINARRI FILOSOFIKOAK:

## Argi izateko zer garen eta zer egin nahi dugun

**H**ona, labur-labur, Elgoibarko Izarraren oinarri filosofi-koetan jaso den garrantzitsuenaren sintesia:

### ✓ Elgoibarko Izarraren EGITEKOA:

Elgoibar euskalduntzea izango da Elgoibarko Izarraren egitekoa edo misioa, beti ere Euskararen Herria (Euskal Herria) saretzen laguntzeko helburuarekin.

Bi dira Elgoibar euskalduntzeko markatutako **helburuak**:

- **Elgoibarko euskaltzaleen komunitatea artikulatu eta eraikitzea.** Elkartearen bueltako komunitatea artikulatu dugu lehenbizi, Elgoibarko Izarraren eragin-gaitasuna handiago izan dadin. Baina, benetako helburua Elgoibarko euskaltzaleen komunitatea saretzea da. Izan ere, gure herria euskalduntzeko erantzukizuna Elgoibar euskalduna nahi duten guztienta da, eta ez Elgoibarko Izarrarena bakarrik.

- **Euskararen (euskaldunon) normalizazioan eragiten segitzea.**

- ♦ Euskararen *erabilera* areagotzeko proiektuak eta egitasmoak sustatuz.
- ♦ Euskararekiko *motibazioa* edo euskalduntasuna indartzeko proiektuak eta ekintzak prestatuz.
- ♦ Euskararen *ezagutza* lantzen diharduten erakunde eta eragileekin elkarlanean jardunez.

### ✓ Elgoibarko Izarraren IZANA:

Euskaldunon egoera hobetzeko euskalduntze-prozesuan parte hartuko duen **gizarte-mugimendua** izango da Elgoibarko Izarra. Bazkideak izango dira mugimenduko protagonistak, eta haien parte-hartzea eta konpromisoa dago mugimenduaren oinarrian. Gure herria euskalduntzeko **bote-rea** izango duen gizarte-mugimendua saretu behar da, baina horretarako bertako kideen konfiantza, gaitasuna eta protagonismoa landu behar da. Elgoibarko Izarra **autonomia** izango da eta erabakiak bazkideek hartuko dituzte, baina herriko elkarte eta eragileekin elkarlanean jarduteko borondatea izango du.

Elkartearen **balioak edo printzipioak**:

- ♦ **Pentsamendua, formazioa eta komunikazioa** dira eraiki nahi den mugimenduaren hiru zutabe garrantzitsuenetakoak.
- ♦ Besteengan **eragitea** izango da elkartearen egiteko nagusietakoa. Herriko eragile eta norbanakoengan eragitea, bakoitzak bere eremuan egin eta eragin dezan.
- ♦ **Elkarlana, aliantzak eta harreman-sareak** sustatu dira. Herriko gainontzeko elkarte eta erakundeekin batera eta elkarlanean jardun nahi du, euskalduntze-prozesua aberatsagoa izango baita denon artean egiten bada.
- ♦ Elkartea **lidergoa** hartzeko prest dago, behar denean eta eskatzen zaionean, baina nahiago du lidergo konpartitua sustatzea. Elkarreak bere ardurak hartuko ditu, baina erantzukizuna guztiona da.

### ✓ Elkartearen IZENA:

Orain arteko izena *Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea* izan bada, aurrerantzean **Elgoibarko Izarra Euskaltzaleen Topagunea** izango da elkartearen izen berria. Euskaltzaleen elkartea izan nahi du. Onartu berri diren oinarri filosofikoekin eta plan estrategikoarekin bat egiten dutenen elkartea, alegia, Elgoibarko Izarra, beste 95 elkarterekin batera, Euskal Herriko mugimendu bateko kide da: *Euskal Herriko Euskaltzaleen Topagunekoa*, hain zuzen ere.

### ✓ Elkartean PARTE HARTZEKO aukerak:

Bazkideak eta bazkideen parte-hartzea dago mugimenduaren oinarrian, eta parte hartzeko bi aukera nagusi izango dira:

- ♦ **Borondatezko parte-hartzea**, bazkide militanteena, hiru konpromiso mailarekin:
  - \* Lan-dinamikan parte hartuko dutenak.
  - \* Behar denean laguntza eskainiko dutenak.
  - \* Konpromiso ekonomikoa baino eskainiko ez dutenak.
- ♦ **Parte-hartze profesionala**, bazkide profesionalena. 17 bazkide profesional izango dira hurrengo hiru urteetan.

# PLAN ESTRATEGIKOA:

## Lau erronka hurrengo hiru urteetarako


### ✓ ERRONKAK:

Lau dira hurrengo hiru urteetarako Elgoibarko Izarrak bere buruari jarri dizkion erronkak. Lehen biak elkartea indartzeko pentsatuta daude, elkartearen izaera eta eragina handiagoak izateko. Hirugarrena, berriz, Elgoibarren euskararen erabilera eta euskalduntasuna areagotzeko da. Eta laugarrena eta azkena, Elgoibar euskalduntzeko ardura eta erantzukizuna herriko euskaltzale guztiona izan behar duelako onartu da.

- ♦ Elgoibarko Izarraren bueltako hizkuntz komunitatea artikulatzea.
- ♦ Elgoibarko Izarra ekonomikoki bideragarria izatea.
- ♦ Elgoibarren euskararen erabilera eta euskalduntasuna areagotzeko proiektuak prestatzea.
- ♦ Elgoibarko euskaltzaleen sarea artikulatzea.

### ✓ ANTOLAKETA-EREDUA:

Hona elkartea onartu duen antolaketa-ereduaren organigrama, organo bakoitzaren funtzio nagusia zehaztuta:



**Batzar Orokorra:** Organo garrantzitsuena da. Bertan hartuko dira elkarteari lotutako erabaki estrategikoak. Bazkide guztiek izango dute parte hartzeko aukera.

**Eremu Sinbolikoa:** Elkartearen bihotza eta motorra izango da. Konfiantza, ikuspegia eta konpromisoa landuko dituen organoa. Nahi duten bazkideek parte hartuko dute organo honetan.

**Zuzendaritza Batzordea:** Urteko kudeaketa-planaren ardura eta erantzukizuna izango du. 9 lagunek osatuko dute Zuzendaritza Batzordea.

**Dinamizatzailea:** Elkartea egin beharreko bidea pentsatu, landu, eta proposamenak prestatzea izango da dinamizatzailearen ardura nagusia.

**Kudeatzailea:** Elkartearen bideragarritasun ekonomikoa sustatzea eta giza-baliabideak kudeatzea izango da bere zeregin nagusia.

**Idazkaritza:** Elkartearen pentsamendua eta norabidea landuko dira, batez ere, sail honetan, eta baita komunikazioa eta formazioari lotutako atalak ere: konfiantza, ikuspegia eta konpromisoa.

**Ekonomia saila:** Elkartea ekonomikoki bideragarria izateko osatuko da lantalde hau, eta, besteak beste, diru-laguntzak eta zerbitzuingintza landuko dira.

**Hedabide saila:** BARRENein 22 urteko ibilbidea egin ondoren, etorkizuneko hedabide-proiektua prestatu eta oinarriak jartzeari izango da sail honek hurrengo hiru urteetan egin beharrena.

**Atxutxiamaiak:** Lau proiektu kudeatuko dituzte sail honek herriko haurren eta gazteen euskalduntze-prozesuan eragiteko: aisia, familia-plana, Gurean Bai, eta nerabe-plana.

Bazkide profesionalak eta militanteek osatuko dituzte lau lan-sailak. Arduraduna profesionala izango da, baina bazkide militanteen konpromisoa gizarte-mugimendu bati dagokion neurrikoa izatea nahi du Elgoibarko Izarrak.

**Langile-batzaria:** Kontratupean dauden 17 bazkide profesionalen talde-izaera eta kohesioa lantzeko da organo hau.

## Guretzat euskara garrantzitsua bada, gu garrantzitsuak gara euskararentzat



100 bazkide inguru izan dira lantalde-dinamikan edo beharra dagoenean laguntzeko prestutasuna erakutsi dutenak. Erretratuan, lantalde-dinamikan parte hartuko dutenetako batzuk.


Jendea da gizarte-mugimendu baten osagai nagusia; jendearen parte-hartzea eta konpromisoa. Elgoibarko Izarraren kasuan, bazkideen parte-hartzea areagotzea izango da elkarteak bere buruari jarritako helburuetako bat. Izan ere, bazkideentzat euskara garrantzitsua bada, bazkideak garrantzitsuak dira euskararentzat. Baina borondatea edo prestutasuna ez dira nahikoa, eta bereziki landuko dira euskalgintzan jarduteko konfiantza edo estimua, gaitasuna edo ikuspegia, eta parte-hartzea edo protagonismoa. Gure herriaren euskalduntze-prozesua gidatzeko boterea duen komunitatea osatzea da Elgoibarko Izarrak bere buruari jarritako erronka nagusia.



JUNKAL  
TXURRUKA

**E**uskara nire ari-maren soinua da, barren-barrenekoa.

Gutako bakoitza bezala, ni ere hiztun baliotsua naiz euskararentzat, denok ere gutxi gara-eta. Nik euskaraz bizi nahi dut, eta denok egin dezakegu zerbait gure inguruan euskara gehiago erabili eta ingurukoak euskara egitera animatzeko.



JULEN  
IRIZAR

**H**erri hau gero eta euskaldunagua izateko nahixa parte-

katzen dot Elgoibarko Izarrarekin. Etapa berrixian bazkidion ekarpenak funtsezkuak izango diranez, lan-dinamika hortan parte hartu nahi dot. Lan-talde anitza eta zabala lortuz gero, aberatsagua izango da emaitza.



ASIER  
ARZAMENDI

**E**uskaltzalia naiz eta Elgoibarko Izarraren proiektuan

siñisten dotelako erabaki dot parte hartzia. Herri euskaldunagua nahi dot, eta hori lortzeko herritarren elkarlana eta parte-hartzia funtsezkoak begittantzen jataz. Lanerako gogua eta ilusia eskeiñiko diodaz elkartiari.



AITOR  
LAUZURIKA

**A**rrerapausuak eman eta indar gehixago egin bihar

dala argi daukat. Nik aspaldi erabaki naban Elgoibarko Izarran parte hartzia, eta beste horrenbeste egittera animatu nahi zaittuztet euskaldun izan nahi dozuen danok. Danon artian errezagua eta aberatsagua izango da.



MIKEL  
ETXANIZ

**G**izartetik sortu-tako sare sendo bat artikulatu

beharko genuke Elgoibarko euskalgintza sustatzeko. Euskaldunon egoera hobetzeko desioa dugun elgoibartarrok saretu, eta elkarlanean jardun beharko genuke batzen gaituen horren alde.



ANE  
IZETA

**E**uskara gure hizkuntza da, Euskal Herrikoa.

Euskara niretzat komunikatzeko, harremanak izateko eta bizitzeko tresna da. Ni euskararentzat, erabiltzaile eta bultzatzaile naizela uste dut, nire bizitzaren parte izatiaz gain, nire lana ere badelako. Espero dut beti egotea gure mingainetan!



## Sanloko taldeek neurria hartu diote Gipuzkoako Kopa txapelketari

Alcorta txapeldun eta Gabaz eta Astigarraga txapeldunorde



**S**anloko hiru taldek jokatu zituzten Gipuzkoako Kopako finalak joan den asteburuan: Alcortak, Gabazek eta Casa Astigarragak. Alcorta Forging Group eskubaloitzaletan bakarrik lortu zuen garaipena, baina bistan da talde elgoibartarrek neurria hartu diotela Kopa txapelketari, joan zen astean Lauko senior nesken taldeak ere eskuratu zuen-eta titulu hori. Bestalde, Tecnifuelle kadete nesken taldea esku hutsik bueltatu da Kataluniatik. Espainiako zortzi talderik onenek jokatu dute han, La Roca del Valles herrian, Espainiako txapelketaren azken fasea. Lehen bi partidak galdu ostean, aurrera egiteko aukerarik gabe geratu ziren Lorea Gabilondok entrenatutako neskek, eta etxera itzultzea erabaki zuten. Asteburu honetan denboraldi aparta aho-zapore gozoarekin amaitzeko beste aukera bat izango dute, Gipuzkoako Kopako finala jokatu dutelako Bera-Beraren aurka, Olaizaga kiroldegian. Domekan izango da partida, 11:15ean.

### Emakumeak kirola egitera animatzeko saioak

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eta Berdintasun Sailak, Mintxeta Atletismo Taldearekin batera, emakumeak korrika egitera animatzeko ekimena jarriko dute martxan ekainaren 10etik aurrera. 14 urte baino gehiago eta "osasun egoera egokia" duten emakumeek parte hartu ahal izango dute. Astean bi saio egingo dituzte, martitzen eta eguenetan. Interesatuak aipaturiko egunetan Mintxetako aparkalekuan agertzea besterik ez dute, 19:00etarako. Debaldeko saioak dira. Saioak monitore batek gidatuko ditu, eta antolatzaileen esanetan, emakumeen artean kirola egiteko ohitura sustatzea da egitasmo honen helburu nagusia.

### Cara Amon kilometro bertikala irabazi du Iñigo Larizek

Cara Amoneko seigarren kilometro bertikala jokatu zuten maiatzaren 31n, Boi bailaran, Lleidako Pirinioetan. Barruera herritik irten (1080 metrora) eta Roies de Cardet mendi ton-torrera (2.450 m.) igo behar zuten antxitxikariekin. Hau da, 1.380 metro igo behar zituzten 4,7 kilometroko ibilbidean. Iñigo Lariz izan zen guztietan azkarrena, eta probako errekorra ondu zuen gainera, 52:30 denborarekin.



### Tenis jaialdia egingo dute zapatuan Olaizaga kiroldegian

Tenis jaialdia antolatu du Udal Kirol Patronatuak zapatuak. 1996an hasi ziren tennis jaialdia antolatzen, gazte eta haurren tennis ezagutarazi eta zabaltzeko helburuarekin. Harrezkero, urtero egingo dute jaia, udaberriaren amaiera aldera, Eskola Kiroleko egutegiaren barruan. Divertenis enpresaren eta 40-15 Tennis Elkartearen laguntzarekin antolatuko dituzten jardunaldiak 100 ume inguruk parte hartuko dute aurten. 10:30ean hasiko da jaialdia Olaizaga kiroldegian, eta 14:00etara bitartean pelotak jaurtitzeko makinarekin, dianekin, minitransportatu eta antzeko jolasekin gozatzeko aukera izango dute haurrek. Sei urtetik gorako ume eta gazteei zuzenduta dago.

### Pedrusko futbol taldeko jokalarik ohien arteko partida

Pedrusko futbol taldea 2007an desegin zen arren, taldean ibilitako hainbat jokalarik lagunarteko partida antolatzea erabaki dute, garai zaharrak gogora ekartzeko. Mintxetan jokatu dute partida zapatuan, ekainaren 7an, 18:30etik aurrera. Partidaren ostean poteo herrikoia egingo dute eta afaltzera joango dira gero denak elkarrekin. 60tik gora lagun daude izena emanda. Era berean, taldeko presidentea izan zen Jose Mari Oruesagasti omentzeko asmoa dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

### Mendaroko frontenis txapelketarako izenematea zabalik

Mendaroko hirugarren frontenis txapelketa antolatu dute Mendaroko Udalak eta frontenis zaleek uztailera-ko. Interesatuok Mendaroko udal-txetan eman dezakezue izena, edo honako telefono zenbakira deituta: 629 932 458 (Maite). Ekainaren 13an bukatuko da izena emateko epea.

# Atletismoa zainetan



Johan Rodriguez, Eider Iglesias eta Martin Hernandez, Mintxetako pista.

**Euskadiko hiru txapeldunekin batu da BARREN Mintxetako atletismo pista. Eider Iglesias, Johan Rodriguez eta Martin Hernandez dira. 150 metro 19 segundoan antxitxika egiteko gai da lehena, hiru kiloko berunezko bola hamahiru metrotara jaurtitzen du bigarrenak, eta 500 gramoko jabalina hamasei metrotara arte jaurtitzeko gai da hirugarrena. Ez dira, ordea, superheroiak, 13 eta 14 urteko nerabeak baizik. Lotsa puntuarekin eta berba gutxirekin erantzun dituzte kazetariaren galderak, baina nabari zaie atletismoa bizi dutela.**

**Asier Orbea**

**A**stelehen, eguazten eta barixakuetan entrenatzen dute Mintxeta atletismo taldekoek izen bereko kirol gunean. Izan ere, konstantzia eta diziplina handia eskatzen duen kirola da atletismoa. Badituzte ezaugarri horiek Eider Iglesiasek, Johan Rodriguezek eta Martin Hernandezek, eta baita berezko dohaiak ere. Lana eta gaitasuna eskutik datozenean errazago zabalitzen da arrakastarako atea, eta halaxe izan da gure hiru protagonisten kasuan


ere. Orain bi aste urrezko domina bana eskuratu zuten Euskadiko atletismo txapelketan, Gasteizen. Martin Hernandezek jabalina jaurtiketan hartu zuen parte eta 36 metro eta 82 zentimetroko jaurtiketak eman zion urrea. Johan Rodriguezek pisu jaurtiketan lortu zuen urrea, 13 metro eta 45 zentimetroko jaurtiketarekin, eta azkenik, Eider Iglesiasek 150 metroko lasterketa irabazi zuen (19:93). Hiru gazte hauek atletismoa nola bizi duten ezagutu nahi izan dugu.

## Eider Iglesias



Orain arte jokatu duen txapelketarik garrantzitsue-  
nean urrea irabaztea sekula-  
koa izan da Eider Iglesiasen-  
tzat. "Ezin nuen sinetsi  
ere egin irabazi  
nuenik", dio. Aurkarietako asko ezagu-  
tzen ez zituenez, erreferentziarik gabe,  
barruan zuen guztia ematera irten zen  
pistara, eta "lasterketa perfektua" egin  
ostean urrea eskuratu zuen. Gustatu  
zaio garaipenak duen zaporea dasta-  
tzea, eta ahaztuko ez duen esperientzia  
izan da bere berbetan. Betidanik gusta-  
tu izan zaio korrika egitea eta 9 urtere-  
kin hasi zen atletismoan. Abiadurarako  
eta jauzietarako dohain bereziak zituela  
ikusita, Mintxeta atletismo taldean izena  
emateko gomendatu zioten, eta harrez-  
kero bertan dihardu. Urte hauetan atle-  
tismoari "kariño" handia hartu diola ai-  
tortu du eta banakako kirola izan arren,  
lagun asko egin dituela. "Lagun giro oso  
ona dugu Mintxetan, taldekideekin zein  
entrenatzaileekin, eta txapelketetara  
goazenean ere egiten ditugu lagunak",  
zehaztu du.

## Martin Hernandez



Martin Her-  
nandez duela  
hiru urte hasi  
zen atletismo-  
an, baina orain  
dela bi hilabete  
eskas hartu  
zuen jabalina  
bat eskuetan  
estreinakoz.  
Halere, bere  
buruarengan konfiantza handiarekin  
aurkeztu zen Euskadiko txapelketara.  
"Gipuzkoako txapelketan parte hartu  
eta irabazi egin nuenez, Euskadikora  
irabaztera joan behar nuela esan nion  
neure buruari eta motibatuta joan nin-  
tzen", azaldu du. Saio biribila irten zi-  
tzaion eta bere marka pertsonala ontze-  
az gainera, Euskadiko txapelketa iraba-  
zi zuen. Mintxeta atletismo taldeko en-  
trenatzaileek pistako proba ezberdinak  
ezagutarazten dizkiete atleta gazteei,  
eta hala hasi zen Martin jabalinarekin.  
Denetarik probatu duen arren, iraupen  
erdiko lasterketak eta jabalina jaurtiketa  
ditu gustukoenak oraingoz, eta ez da  
batere gaizki moldatzen batean zein  
bestean, garaipen bat baino gehiago  
lortu ditu-eta dagoeneko. Aurrez futbo-  
lean ere jokatzeko zuen, baina atletismo-  
gatik laga zion jokatzeari.

## Johan Rodriguez



Izterondo  
zabal eta gor-  
puzkera sendo-  
ko 13 urteko  
mutila da Johan  
Rodriguez. Pa-  
tinetea hartuta  
ibiltzen da kale-  
an gora eta be-  
hera, horixe du  
eta zaletasun,  
baina ez du kiroltzat hartzen. Duela bi aste  
boxeoan hasi bazen ere, atletismoa da be-  
re kirol kuttuna. Eskolarteko kirolean zihar-  
duela eduki zuen lehen kontaktua atletis-  
moarekin eta orain dela bi urte hasi zen  
Mintxeta atletismo taldean. Luzera jauzian,  
esprintean eta pisu jaurtiketan aritu da  
orain arte. "Hiruretan moldatzen naiz ondo  
eta horiek dira, gainera, nire ezaugarrietara  
ondoan moldatzen diren probak". Pisu  
jaurtiketarekin bi urte daramatza, eta emai-  
tza onak lortu ditu txapelketetan. Iaz hiru-  
garren postua eskuratu zuen Euskadiko  
txapelketan, eta aurten urrezko domina.  
Jabalina eta pisu jaurtiketa proba oso tek-  
nikoak direla nabarmendu du Rodrigue-  
zek, "Jaurtiketak egiterakoan gorputz oso-  
arekin egin behar da indarra, eta ez beso-  
ekin bakarrik, jende askok pentsatzen  
duen moduan. Mugimendu eta pauso  
guztiak daude neurtuta".

Atletismo taldeko  
neska-mutilak, Min-  
txetan.



# Susperraldiaren azoka



BECen 'Makina-erremintaren historia laburra' aurkeztu zuteneko argazkia.

**Astlehenean zabaldu zuten makina-erremintaren biurteko azoka Barakoldoko BECen, eta bihar arte sektoreko hainbat eta hainbat enpresen lanak ikusteko aukera egongo da. Aurten, Euskal Herriko eta nazioarteko 1.314 enpresa ari dira parte hartzen, aurreko aldiaren baino %12 gehiago, eta horien artean, Elgoibarko eta Mendaroko 19 enpresa daude. Enpresez gain, Elgoibarrek aipamen berezia izan du aurtengo azokan, makina-erremintaren mendeurrena dela-eta. Horren harira, Elgoibarko Udalak eta herriko hainbat eragilek elkarlanean prestatu duten liburua aurkeztu dute.**

**H**ainbat urtez krisialdian murgilduta egon ostean, baikortasuna nagusitu da aurten makina-erremintaren azokan. Adituen arabera, susperraldiaren eta loraldiaren garaian gaude. "Hondoa jo ostean", makina-erremintaren sektorea argia ikusten hasi da berriz ere, eta Iñigo Urkullu Jaurritartzako lehendakariak berak euskal ekonomia hobetzen ari dela ziurtatu du. Enpleguari dagokionean ere, maiatzeko datuak "onak" izan dira, eta orain arteko tendentzia alde batera lagata, enplegua sortzen hasi dela nabarmendu dute. Maiatzeko datuen arabera, 3.206 langabe gutxiago daude Euskal Herrian. Urkulluren hitzetan txarrena pasatu da, eta etorkizuna "garbiago" ikusten da.

## Makina-erremintaren mendeurrena

Debabarrean eta Elgoibarren bereziki makina-erremintaren sektoreak duen garrantziatik berezia izan ohi da beti Bilboko azoka, baina aurtengoan are bereziagoa izan da, Elgoibarko makina-erremintaren mendeurrenaren urtean gaudelako. Mendeurren hori hizpide izan da makina-erremintaren azokan. Iñigo Urkullu lehendakariak inauguratu

zuen astlehenean biurtekoaren 28. edizioa eta Elgoibarri buruzko aipamen berezia egin zuen, makina-erremintaren alorrean gure herrian egin den lana nabarmenduz. Elgoibarrek duela ehun urtetik gaur arte izan duen eraldaketa industrial "eredugarria" izan dela nabarmendu zuen lehendakariak. Elgoibarko Udalak eman zion oroigarria eskertu zuen Urkulluk inaugurazio ekitaldian.

Elgoibarko makina-erremintak ehun urte bete ditu, eta hori ospatzeko urte osoko egitaraua prestatu du Udalak. Ekitaldi horien artean, *Makina-erremintaren historia laburra* liburua argitaratu du Udalak, herriko historiagile eta hainbat eragilerekin elkarlanean. Martitzenean aurkeztu zuten liburua makina-erremintaren azokan. Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatea, Xabier Ortueta AFMko zuzendaria, Xabier Basañez BECeko zuzendaria, Pello Arrieta historiagile eta liburuaren idazlea izan ziren aurkezpen ekitaldian, Elgoibarko hainbat enpresetako eta IMHko ordezkariekin batera. 10.000 ale argitaratu dituzte, eta 9.800 euroko aurrekontua izan du. 6.000 ale banatu dituzte azokan, 2.000 ale mendeurrenaren antolatu eta finantziatu dutenen artean banatu dituzte, eta gainerakoak IMHko museoan jarriko dituzte salgai, 5 euroan.



## XABIER ORTUETA, AFMko zuzendaria

**27 herrialdeetako 1.314 enpresa batu ditu aurten makina-erremintaren azokak, aurreko edizioan baino %12 gehiago. Zifra horien gaineko zein irakurketa egin duzue?**

Barne merkatuan beste giro bat sortzen ari dela iruditzen zaigu, eta horrek eraman gaitu aurtengo azokako espazio-okupazioan %12 gehiago izatera. Horrez gain, bezeroen inbertsiorako joera hobetzen ari dela nabaritu dugu, eta bisitarien kopuruak ere gora egin duela esango nuke. Oraindik geratzen dira egun batzuk azoka ixteko, baina esango nuke bisitari kopuruak %10 inguru egin duela gora. Beste alde batetik esan behar da barne merkatuan eskaerak %65 hazi zirela iaz. Egia da jaitsiera oso handi batetik gertatzen dela, eta asko jaitsi ondoren gora egitea ez da zaila, baina positiboa da. Hala ere, termino absolutuetan asko dauka hazteko oraindik barne merkatuak. Aipatu nahiko nuke ere, inportatzaileen artean ere sententzio hobekak nabari direla. Iazko urte amaiera eta aurtengo urte hasieran egoerak apur bat hobera egin du.

**Atzerriko eta bertako enpresen artean, Elgoibarko eta Mendaroko 19 enpresa ere izan dira azokan. Makina-erreminta oso garrantzitsua da gure eskualdean, eta azken urteetan krisialdiak nabarmen eragin du. Zein da une honetan sektorearen egoera?**

Sektorearen egoerak irakurketa zabalagoa eskatzen du. Barne merkatuaz gain, kanpo merkatuak ere garrantzia handia dauka sektorearen egoera aztertzerakoan. Kontuan hartu behar da makina-erremintako osagarri eta osagaiak ekoizten dituztenek produkzioaren %81 esportatzen dutela, eta makinak egiten dituztenek %91 esportatu zutela iaz. Hortaz, kanpo merkatuaren egoera kontuan hartu behar dugu, eta une honetan egoera aldatu egin da. Azkenaldian Asiak apur bat behera egin du, nahiz eta oraindik ere munduko kontsumitzaile handiena Txina izan, baina bere indarra apur bat ahuldu egin da. Europa eta Amerika, Estatu Batuak bereziki, indarra hartzen hasi dira, baina indartze horrek oraindik ez du orekatu Asiaren jaitsiera, eta hor dago gure kezka. Txinaren indarra pixkat jaitsi da, eta Indiak beherakada nabarmena jasan du, eta Estatu Batuak ondo badaude ere, Alemania ez dago guk nahiko gertu bezain indartsu. Batzuek galdu dutena eta besteek irabazi dutena konparatuz, egoera ez dago oraindik guk nahiko gertu bezala. Oro har, barne merkatua hobeto dago, baina kanpo merkatuan gauzak zailtzen hasi dira.

**Eta, nola ikusten duzue etorkizuna?**

Gauzak hobera jo beharko dutela uste dugu. Analisi egoerak egiten ditugun, eta aurreikuspenak ez dira txarrak, baina erreminta-makinaren sektorean gora-behera asko egoten dira, eta goranzko joera

hori eman artean zailtasunak egongo dira ziur. Baina datozen hiru edo bost urteetan ez zaigu iruditzen gauzak okertuko direnik, eta poliiki-poliiki gorantz joango garela uste dugu.

**Aurten 100 urte bete ditu Elgoibarko makina-erremintak, eta Urkulluk berak ere eredugarritzat jo du Elgoibarren egin den lana. Non dago Elgoibar sektorearen barruan?**

Nire familia Elgoibarkoa da, eta nire erroak Elgoibarren ditut, eta ikusten dudanez, Elgoibar berezia da azokan. Euskal Herriko eta atzerriko ekoizle asko dago BECen, baina ikusten da makina-erremintaren bihotza Elgoibarren dagoela. 100 urte hauetan makina-erremintako-ekoizleei biderkaketa ahalmena eman diena izan da Elgoibar; hau da, enpresa batetik ekosistema industrial oso bat sortu da ingurune horretan. Mapa batean konpas batekin Elgoibar inguruan 50 kilometroko borobil bat marraztuko bagenu, hor dago gure industriaren bihotza. Gainera, historiari buruz hitz egiten denean iraganari buruz hitz egiten da askotan, eta Elgoibarren makina-erremintaren sektorea ez da iraganean gelditu; orainaldian dago, eta in-

dar izugarriarekin gainera, eta etorkizunera begira. Irakurketa hori oso interesgarria iruditzen zait.

**Erreminta-makinaren hainbat alorretako 800 bat makina aurkeztu dituzte azokan. Berrikuntzaren alorretik etor daiteke sektorearen suspertzea?**

Berrikuntza guretzat ez da susperraldiaren adierazle. Berrikuntza bizirauteko nahitaezko faktorea da. Makina-erreminta ekoizleek beste sektore batzuei ematen diete produktibitatea, eta ezinbestekoa da beste sektore horiekin

batera garatzea. Guretzat berrikuntza da gure bezeroei proposamen egokiak egiteko ahalmena edukitzea. Ezin gara gelditu, eta berrikuntza ezinbesteko faktorea da guretzat.

**Sektorearen suspertzearen azoka izango dela adierazi dute adituek, hau da, hondoak jo duela sektoreak eta berri hasiko dela loraldia. Zer uste duzue?**

Lehen esan bezala, barne merkatuan egoera hobetzen ari dela dirudi, baina ezin dugu lo hartu, gure aktibitatearen portzentaje oso handi bat kanpoan daukagulako, eta horretan jarraitu behar dugu lanean. Guretzat egokiena kanpoan lehengo mailari eustea, eta barnean saltzeko izan ditugun zailtasunak gainditzea izango litzateke onena.

**Zein garrantzia dute AFMrentzat Barakaldokoa bezalako azokak?**

Azokak oso inportanteak dira guretzat. Guk egiten dugun produktua industrial da, eta ez da kalean ikusten. Oso produktu bereziak eta bakarrak dira gainera, eta hori bezeroei erakustea ezinbestekoa da. Bezeroek askotan ezin dituzte ikusi enpresek ekoizten dituzten makinak, eta ferian erakusten dira gauza horiek. Kontaktuak egiteko eta bezero berriak ezagutzeko ere balio du azokak. Sektore industrial ezkutu baten enpresek duten ahalmena plazaratzeko guneak dira, eta oso garrantzitsuak dira guretzat.

**“Datozen urteetan ez zaigu iruditzen gauzak okertuko direnik eta gorantz joango garela uste dugu”**

## Elgoibarren ospatuko da Euskal Eskola Publikoaren aldeko jaia, 2015ean

‘Gustatzen jata, gustatzen jaku Euskal Eskola Publikoa’ da ekitaldirako aukeratu duten leloa

**E**lgoibarko Herri Eskolak eta EHI-GE Euskal Herriko eskola publikoetako Gurasoen Konfederazioak, tartean Kalamuak (Elgoibarko Herri Eskolako gurasoen elkarte), elkarlanean antolatuko dute Euskal Eskola Publikoaren aldeko jaia datorren urtean. “Gure eskolaz harro sentitzen gara, ikasle, irakasle eta gurasoen artean makina bat muga gainditu eta erronka guztiei aurre egiten diegulako, elkarri lagunduz, elkarrekin bideak zabalduz. Gure eskola altxorra da guretzat, eta altxor hori partekatzen asmoz, Euskal Eskola Publikoaren festa antolatuko dugu 2015eko ekainean Elgoibarren”, adierazi zuten Kalamua guraso elkarte-ko ordezkariak joan zen domekan Balmasedan egin zen Eskola Publikoaren aldeko festan.



### ‘Gustatzen jata, gustatzen jaku’

Elgoibarko Herri Eskolak eta Kalamua guraso elkarteak urtebete dute dena prestatzeko, baina dagoeneko hasi dira lanean. Ikastetxeak ikasturte bukaerako jaialdian jakinarazi zien ikasle zein gurasoei albistea, joan den astean. *Jata* erle itxurako maskotaren ahotik jaso zuten berria. “Gure aldarriarekin batera,

*Jata* erlea eta *Jaku* erletxoak ageri dira, erleak ekosistemarentzat bezain garrantzitsuak direlako hezkuntza eta gure eskola gizarte honentzat. Baita taldean bizi eta ikastea gustatzen jakulako ere”. Elgoibarren antolatuko duten festako leloa ere eman dute jakitera: *Gustatzen jata, gustatzen jaku, Euskal Eskola Publikoa.*

### ‘Tertuliak’ egitasmoan parte hartzen duten sei lagun izan dira Mintza Egunean



Euskal Herriko Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen duen Mintza Eguna Arabako Izarran izan da aurten, eta elkarteak kudeatzen duen Tertulia programako sei lagun egon ziren bertan zapatuan. Eguraldi hotza, baina giro beroa izan zutela esan digute Izarran egon zirenek. Euskal Herriko 80 herritan dago Tertuliak programaren antzerakoren bat, eta 5.500 lagun inguruk parte hartzen dute. Iaz, Elgoibarren ospatu genuen Mintza Eguna, Elgoibarko Izarraren 50. urteurreneko ospakizunen barruan.

### Elgoibarko txokoak izango da 2015eko egutegia osatzeko lehiaketako gaia

Elgoibarko txokoak izango da datorren urteko egutegia osatzeko Udalak aukeratu duen gaia. Ezkutukoak, ezezagunak edota bereziak izan daitezke txoko horiek, baina ezinbestean Elgoibarkoak izan behar dira. Ez dira onartuko Elgoibarko erreferentziarik egiten ez dioten argazkiak, hau da, edonongoak izan daitezkeen argazkiak, herriaren identifikaziorako inolako argibiderik ematen ez dutenak. Elgoibarren jai, bizi, ikasi edo lan egiten dutenek hartu dezakete parte, eta parte hartzeko gutxieneko adina 16 urtekoa izango da. Partaide bakoitzak sei argazki aurkeztu ditzake gehienez. Argazkiak aurkezteko azken eguna urriaren 17a izango da. Informazio gehiago 943 744 366 telefonoan edo Udaleko Euskara Batzordean eskura dezakezue.

# Elikadura iraunkorrerako proposamenak egin dituzte ikasleek pleno txikian

Ikastolako, Herri Eskolako eta institutuko ikasleek hartu dute parte



**E**lgoibar Ikastolako, Herri Eskolako eta institutuko ikasleek elikadura iraunkorra landu dute ikasturte honetan, eta gai horren inguruan dituzten kezken eta iradokizunen berri eman zieten agintariei martitzeneko pleno txikian. Eskolako Agenda 21 programaren baitan, Ingurugela eta Debegesa Garapen Agentziaren koordinaziopean landu dute gaia, eta urtean zehar hainbat ekintza egin dituzte ikastetxeetan. Besteak beste, zer eta nola jaten dugun aztertu dute ikasleek, eta herriko azoka eta baserriar merkatuak ezagutu dituzte. Honela, herriko diagnostikoa egin dute, hobetu beharreko puntuak identifikatu dituzte, eta horiek bideratzeko proposamenak aurkeztu zituzten osoko bilkura berezian. Bittori Zabala, Javier Muñoz, Miren Arrate Arrieta, Joseba Arrizabalaga zinegotziek in batera, Elgoibarko ikastetxeetako 40 bat ikaslek hartu zuten parte. Ekitaldiaren amaieran, eta gaiarekin lotuta, mokadutxo “osasuntsua” dastatzeko aukera izan zuten ikasle eta irakasleek. Besteak beste, frutaz eginiko brotxetak jan zituzten Usua tabernan.

## Musika Eskolako ikasleak Hondarribiko akordeoi topaketan izan dira

Euskal Herriko hainbat musika eskolako 115 bat ikaslek hartu zuten parte Hondarribiko akordeoi topaketan, eta horien artean, Elgoibarko Inazio Bereziartua musika eskolako hainbat ikasle ere izan ziren, Maite Janeiro soinu irakaslearekin batera.



## ‘40 Principales’ dantza ikuskizuna eguen eta barixakuan

Urtean zehar dantza eskoletan ikasitakoa jendaurrean eskainiko dute Biraka dantza taldeko ikasleek datorren astean. Josu Mujika dantzari eta koreografoak 40 *Principales* dantza ikuskizuna prestatu du aurtengo ikasturteari amaiera emateko, eta dantzaldiaren barruan irrati formula guztietan gehien entzun diren kantuak dantzatuko dituzte. Bi saio eskainiko dituzte eguenean eta barixakuan, 22:00etatik aurrera, Herriko Antzokian. Sarrerak 3 euroan erosi daitezke Pitxintxun.

## 4.000 euro emango ditu Elgoibarko Udalak, gazteen ekimenak sustatzeko

Elgoibarko Udalak 4.000 euroko diru-laguntzak eskainiko ditu gazteen ekimenak sustatzeko. Gazteria Sailak nerabeen eta gazteen ekimenak bultzatu nahi ditu, haien interesekoak eta gogokoak diren arloetan. 13 eta 30 urte bitarteko gazteak aurkeztu daitezke deialdi honetara. Ezinbestekoa izango da euskararen erabilera bermatzea, eta ahozko zein idatzizko komunikazioan euskarak lehentasuna izatea. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 11n bukatuko da. Informazio gehiago [www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org) webgunean edo Gazteria Sailean bertan (943 741 050).

## Maalako jai batzordean parte hartzeko deia

San Bartolome jaiak elkarlanean antolatzeko asmoz, Maalako jai batzordeak gazteak animatu nahi ditu batzordean parte hartzera. Jai eredu desberdina bultzatu nahi dute, parte hartzailea eta herritik sortutakoa. Interesatuak [malakojaibatzaordea@gmail.com](mailto:malakojaibatzaordea@gmail.com) helbidera idatzi besterik ez dute.

**LANA**

**ESKAERA**

- Mutila eskaintzen da adinekoak zaintzeko, baserriak edota elkarteak garbitzeko... ☎ **686 077 316**
- Emakumea lanerako prest: Sukaldari laguntzaile edo adinekoak zaintzen egingo nuke lan. ☎ **606 354 982**
- Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Etxein zein ospitalean. Gauzez ere bai. ☎ **660 551 781 / 943 742 330**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Garbiketa lanak egiteko ere prest. ☎ **631 832 767 (Eva Ramirez)**
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **610 658 914**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **626 052 165**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ **632 126 668**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditu. ☎ **646 931 162**
- Emakumea eskaintzen da etxebizitzak, tabernak, elkarte gastronomikoak eta portalak garbitzeko. ☎ **697 702 158**
- Neska euskalduna eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. ☎ **617 571 210**

- Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Esperientziaduna. Gomendiozko gutuna dauka. ☎ **631 832 767**
- Emakume arduratsua, umeak eta adinekoak zaintzeko prest. Interna moduan ere egingo luke lan. ☎ **675 512 267**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo lituzke, eta interna moduan lan egiteko prest legoke. ☎ **680 808 125**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Orduka. ☎ **648 826 638**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Orduka. ☎ **636 362 251**
- Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **630 764 528**

**ESKAITZA**

- Neska gaztea behar da, asteburuetan zerbitzari aritzeko. Elgoibarren bizi eta euskaraz jakitea baloratuko da. Curriculuma **Sua** tabernan laga behar da.

**ETXEBIZITZAK**

- Pisua alokatzen dut Donostian, Gros auzoan. Ikaseentzako egokia, unibertsitateko eskolak irauten duten garaian. ☎ **639 775 253 (Juan Andres)**

- Bi logelako etxea alokatzen dut Madalan. Eguzkitsua, igogailuarekin. ☎ **652 716 724**
- Ganbara-etxebizitza alokatzen dut Pedro Muguruzan. Bi logela, oso argitsua. Bizitzera sartzeko prest. ☎ **652 762 236**
- Emakume batek etxea hartuko luke alokairuan, ahal bada hiru logelatakoa. ☎ **603 237 932**
- Babes ofizialeko etxebizitza salgai Santa Ana kalean. Logela bakarreko estudioa, terraza, garajea eta trastelekuarekin. ☎ **610 729 761 (Arkaitz)**

**OSPAKIZUNAK**

- 1964an jaio eta 50 urte beteko dituzten elgoibartarren bazkaria ekainaren 21ean, Sigma jatebtxean. 60 euro sartu behar dira, Laboral Kutxako kontu honetan: 3035 0007 20 0071129002. Informazioa eta argazkiak konpartitzeko: [Elgoibar1964\\_quintos@yahoo.es](mailto:Elgoibar1964_quintos@yahoo.es) / Facebook: [elgoibar1964\\_quintos](https://www.facebook.com/elgoibar1964_quintos). Antolatzaileek argazki zaharrak eta ez hain zaharrak eskatu dituzte.

**BESTELAKOAK**

- Liburuak oparitu nahiko nituzke. ☎ **683 338 479**




ESKERTZA


## FRANCISCO HIDALGO GARMENDIA

2014ko ekainaren 4an hil zen, 56 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



**Derrigorrezkoa da bilera bat antolatu eta bizilagun guztiak batzar horretara deitzea portalean garrantzia gutxiko konponketa bat egiteko? Adibidez garajeko atea margotzeko, edo lehiu bat edo matxura elektriko bat konpontzeko?**


Etxejabeen batzarrari dagokio komunitateari dagozkion gai guztien inguruan erabakitzea.

Azkeneko erreforma egin zenetik, baina, legeak dio eraikinaren mantenu egoki baterako bizilagunek eurek edo eta administrazio publikoek obraren bat egiteko beharra ikusten badute obra hori egitea derrigorrezkoa dela eta ez duela aurrez etxejabeen batzarraren onspena izan beharrik. Gauza bera gertatzen da eraikinak segurtasun, bizigarritasun eta irisgarritasun baldintzak bete ditzan egin beharreko obrak direnean.

**GOMENDIOA: Praktikan, baina, obra horiek hileroko kuotetan eragingo duten igoera dela-eta, komeni da batzar bat antolatzea eta etxejabe guztiei jakinaraztea zer egingo den eta zergatik. Era berean, bizilagunei obra horien gaineko dokumentazio guztia helarazi beharko zaie, dela aurrekontua, gastuen zenbatekoa eta abar, modu horretan etxejabeen batzarrak egin nahi den obra horren gainean iritzia bat izan dezan.**

---

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Basque Council of Administrators of Companies  
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas





• Zorionak, **Lorea**, hila-  
ren 31n 8 urte bete ze-  
nituelako. Zorionak,  
eta muxu handi bat, fa-  
miliakoen partez.



• Zorionak, **printzesa**,  
3 urte bete zenituelako.  
Txokomarrubizto  
muxu bat, guztion par-  
tezt.



• Zorionak, **Asier**, ekai-  
naren 2an 10 urte ze-  
nituelako. Gurasoen eta  
Araceliren partez.



• Zorionak, **Leire**, bihar  
12 urte egingo dituzu-  
lako. Osaba-izeben  
partez. Ondo pasa!



• Zorionak, **Mikel**,  
maiatzaren 30ean 3  
urte bete zenituelako.  
Muxu handi bat, etxe-  
koen partez.



• Zorionak, **Susane**,  
igande honetan 7 urte  
beteko dituzulako. On-  
do pasa, familiakoen  
eta laguneren partez.



• Zorionak, **Intza**, zure  
bigarren urtebetetze-  
an, etxekoeren partez.  
Oso ondo pasatu ge-  
nuen.



• Zorionak, **Martxel**.  
Hiru urte egin dituzul!  
Etxeko guztion partez,  
pa, pa eta pa.



• Zorionak, **Noa**, hu-  
rrenge asteazkenean 2  
urte potolo egingo di-  
tuzulako.



• Pixkat berandu ba-  
gabilza ere, zorionak,  
**Anel** Dagoeneko 4 ur-  
te! Patxo handi bat  
etxekoeren, eta bereziki,  
Noraren partez.



• Zorionak, **Garazi**,  
atzo 10 urte bete ze-  
nituelako. Familia osoa-  
ren, eta bereziki Uraitz  
eta Naroaren partez.  
Muxu handi bat.



• Zorionak, **Alex** Ondo  
pasa igandean, zure  
urtebetetze egunean.  
Bederatzi muxu handi  
famiakoeren eta bereziki  
Mikelen partez.



• Zorionak, **Maialen**,  
18 urte potolo! Ondo  
pasa dezazula gaurko  
egunean. Etxekoek,  
eta bereziki Anek eta  
Nereak.



• Zorionak, **sorgintxo**,  
asteazkenean 4 urte  
egin zenituelako. Muxu  
handi-handii bat, fami-  
liako guztion partez.



• Zorionak, **Irune**, zure  
zortzigarren urtebete-  
tzean. Asko maite zai-  
tugu. Familiakoeren, eta  
bereziki, Onarren par-  
tezt.



• Zorionak, **Haizea** eta **Maddi**,  
ekainaren 4an 4  
urte egin zenituztelako.  
Patxo handi bat, etxe-  
kon partez.



• Zorionak, **Jon** eta **Javier**,  
igandean 2 urte be-  
teko dituzuelako. Muxu  
handi bana, familiako  
guztione partez.

## BRASIL 2014

**Gozatu mundialaz  
MILARrekin**

47"

Full HD 3D  
Smart TV  
400 Hz MCI  
Dual Core  
Energia kontsumo: A

**699€**

**LED 47" LG 47LA660S**

48"

LED 48" SAMSUNG  
UE48H8000 S  
CURVED

**1599€**

Samsung telebista kurbatua  
erosteagatik Samsung Galaxy S4  
bat jasoko duzu oparizat\*  
\*Bardintzei lotuta

**MILAR**

**BIRE**

Ubitarte 11  
943 741 487  
bire@milar.es

## 6 barixakua

### Gure Esku Dago

17:00 / 18:30 Metroak salgai

Ekainaren 8ko giza katean parte hartzeko metroak jarriko dituzte salgai. Elgoibarren, Kalegoen plazan, eta Mendaron, plazan.

## 7 zapatua

### Kirola

10:30 Tenis jaialdia

Kirol patronatuak antolatuta, Olaizaga kiroldegian.

## 8 domeka

### Aisialdia

10:00 Elgoibar bi erroberatan

Herri Eskolak antolatuta, Kalegoen plazatik Sallobentera joango dira bizikletaz.

## 10 martitzena

### Lehiaketa

19:00 Pintxo lehiaketa

Elgoibarko pintxo lehiaketa hasiko da. Eguenera arte arratsalde, eta hilaren 13an goizez eta arratsalde egongo da pintxoak probatzeko aukera.

## 11 eguztina

### Informazio saioa

17:00 Ingeniaritza duala

Ingeniaritza dualari buruzko informazioa emango dute IMHn.

## 12 eguztina

### Dantza

22:00 'Los 40 principales'

Josu Mujikak zuzendutako dantza emanaldia. Herriko Antzokian.

## 13 barixakua

### Dantza

22:00 'Los 40 principales'

Josu Mujikak zuzendutako dantza emanaldia. Herriko Antzokian.

### IKASTOLAREN EGUNA

#### 7, zapatua

0:45 Kalejira

Kalegoen plazatik, Ikastolara.

11:00-13:00 / 15:00-16:00

#### Puzgarriak

Ikastolan.

11:15 Umeentzako jolasak

Ikastolan.

12:00 Itsasontzia hondoratzen

Jolas erraldoia egingo dute.

12:00 Zumba saioa

Haurtaindegi zerbitzua jarriko dute, gurasoek lasai dantzatu dezaten.

14:00 Bazkaria

15:45 Sari banaketa

16:00 Enkantea

16:15 DJ emanaldia

16:30 Mus txapelketa

### SANMIGELDARREN EGUNA

#### 8, domeka

11:30 Meza

Aiastiako ermitan.

12:30 Pilota partidak

Murkaikupe frontoian.

14:30 Bazkaria

Auzoko kirol taldea omenduko dute.

### BOTIKA ORDUTEGIAK: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00 GUARDIAK


| 09:00 - 22:00  | 22:00 - 24:00                        | 24:00 - 09:00  |
|--|--------------------------------------|--|
| 31 Ibañez<br>1 Ibañez<br>2 Fernandez<br>3 Etxebarria<br>4 Fernandez<br>5 Yudego<br>6 Zabaleta<br>7 Barrenetxea | Astelehenetik igandera<br><br>Yudego | Azkue (Eibar)<br>Toribio Etxebarria 4<br>(943 202 344) |

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142


**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Zabaleta** Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384



Ekainaren 23an udako programaketa berezia hasiko da. Astelehenetik ostiralera irekiko dugu gazteleku. Asteburuetan, itxita. Ordutegia ekintza berezien araberakoa izango da.

Datorren astean ere udarako ekintzetan izena emateko aukera daukazu ludotekan!  
Animatu zaituz!



# EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNEAN AURRERA EGITEKO GIPUZKOAKO HERRIEN ~~%70a EZ DA~~ ARI DA LANEAN.

<sup>^</sup> 10.000 biztanle baino gutxiagoko 40 herri, kolektiboki lan egiten ari dira tokiko berdintasun politikak garatzeko, Berdinbidean programaren barruan.

<sup>\*\*</sup> 21 herri parte hartzen ari dira Gipuzkoako Berdintasuneko Teknikarien Sarean.

<sup>\*\*\*</sup> 3 herri eta mankomunitate bati lagundu zaie tokiko berdintasuneko teknikariak kontratatzen: Azkoitia, Tolosa, Ordizia eta Urola Garaia (Ezki-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga).

<sup>\*\*\*\*</sup> 16 udaletako eta mankomunitate bateko tokiko berdintasuneko 30 proiektu garatzen laguntzea, diru laguntzen urteko delaldiaren barruan.

**zerbitzua euskaraz  
eman nahi dizugu**

**lagundu hobetzen**



Eskaini 5 minutu galdetegia erantzuteari eta parte hartu produktu kulturalak erosteko 50na euroko 3 bonoren zozketan



**bete hemen  
galdetegia**

**eskerrik asko!**



Gipuzkoako Foru Aldundia

*Gipuzkoa*  
BERRIA